

azpeitian zer?

udal aldizkaria

189. zenbakia

HERRITARREN BIZI-KALITATEA HOBETZEN LAGUNTZEKO BALIABIDEAK JARRI DITU UDALAK

Ziurgabetasuna nagusi den honetan, Azpeitiko Udala egoera sozial eta ekonomikoari erantzuteko baliabideak eskaintzen ari da herritarrei



azpeitiko udala
denon artean

TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailtza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Urriak 6, 16, 17, 18, 23 eta 27

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Urriak 3, 4, 9, 13, 19 eta 26

ARTETXE-BASTIDA

Urbitarte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Urriak 5, 12, 20, 24, 25 eta 29

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Urriak 1, 8, 10, 11, 15, 22 eta 30

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Urriak 2, 7, 14, 21, 29 eta 31

ALE HONETAN ZER?

Egoeraren kudeaketa.....	3
Ikasturte hasiera	6
Laguntzak	8

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala.
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Maketazioa eta testuak:
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITTIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN



INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN T ARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



Erdi Aroan suzko armarik kasik ez zegoenez, harresiak nahiko lodiak izaten ziren (bi metro inguruko zabalera), bestelako erasoei eutsi ahal izateko. Harresiek gezi-leihoak eta almenak izaten zituzten bira osoan, egoki banatuta. Azpeitiko hiribilduak lau sarrera zituen:


- Sarrera nagusia Plaza Txikian zegoen, Kalegoeneko sarrera.
 - Bigarren sarrera nagusia herriko hiru kaleek bat egiten zuten lekuan zegoen, egungo Perez Arregi enparantzan
 - Hirugarren sarrera bat Enparan zubira zuzenduta zegoen, Urola ibaiaren bestaldeko lurralde eta biztanleekin bat eginez.
 - Laugarren sarrera, Santiago kalerik ez zenez izan urte askotan, Soreasuko Sebastian donearen parroki inguruan zen; baliteke bere dorre azpitik igarotzea.
- Sarrera bakoitzak zuen bere garrantzia eta nortasuna. Sarrera horiek, urteak joan ahala, lekua utzi behar izan zioten herriaren zabalkuntzari. Garrantzia handia izan zuten harresiak eta bertako sarrerek. Beraien bidez defendatzen ziren herritarrak une larrietan, bertaratzen ziren guztiak kontrolatzeko aukera baitzuten

2

udalaldizkaria

EGOERAREN KUDEAKETA

OSASUN LARRIALDIAK SORTUTAKO ERAGINAK LEUNTZEN, LEHEN MOMENTUTIK



Martxoaren 15ean Alarma egoera ezarri zenetik etengabe aritu da egoera berri horrek eragindako beharrei erantzuten udala: oinarrizko beharrei erantzuten, kaleak desinfektatzen, maskarak banatzen...

3

udalaldizkaria

Sei hilabete pasatu dira Covid-19 birusaren mundu mailako pandemiak herritar guztion egunerokoa eta ohiturak hankaz gora jarri zituenetik. Pandemiak eragin zuzena izan du herritarren osasun egoera integrarean, sozialean eta ekonomikoan. Hilabete nahasi eta zailak izan dira guztiontzat; bai bizitzeko eta baita erabakiak hartzeko ere. Ezinezkoa izan baita epe motzean zer gertatuko zen, eta noiz arte iraungo zuen jakitea. Egoera eta ezjakintasun horretatik abiatuta, Azpeitiko Udalak helburu bat eta bakarra izan du: zailtasunen aurrean ekitea, behar gehien zutenak lagundu eta babesteko.

Hasierarik herritarrei eta batez ere, okerren pasatzen ari direnei laguntza eskaintzea izan da eginkizun nagusia. Horretarako, martxoan birusaren lehen zantzuak Euskal Herrira iritsi zirenean, egoerari aurre hartu nahian boluntario sarea osatzeko deia egin zuen eta 150 herritar bai-

no gehiagok izena eman zuten elkartasun sare horretan. Sare horren bidez hasierako une horietan 70 urtetik gorako herritar guztiei eta etorkinei deitu zitzaizkien laguntza eskainiz eta dei horien bidez detektatu ziren hainbat behar, besteak beste.

Lehen momentutik, egoera horretan kalteberenak zirenei eta okerren ari zirenei laguntza eskaini zaie; "Herritarrek babestea izan da hasieratik gure laguntza. Herritarrek babestea izan da hasieratik gure asmoa. Elkarzaintza sustatu dugu eta herritarrek udala hor dagoela jakitea laguntzeko eta babesteko garrantzitsua da guretzat, adierazi du Nagore Alkorta alkateak".

Une zailak izan direla aitortzen du, baina gauza bat izan dute garbi hasieratik: "Bi aukera genituen, gogragoko erakundeen zain egon edo hasieratik ekin. Guk beharrezkoa ikusi genuen hasieratik herritarren beharrei erantzuteko erabakiak har-

**"GARRANTZITSUA
IZAN DA ZERBITZU ETA LERRO
DESBERDINEN BIDEZ HERRIKO
ERREALITATE ANITZEI
ERANTZUTEKO NEURRIAK
HARTZEA"**

tzea", azpimarratu du. Eta horrelaxe egin zuten, pandemiaren hasieratik behar gehien zuten herritarrentzat zerbitzu eta laguntza berriak zein zeudenak egokitu zituzten.

Pandemiak eragindako ondorio ekonomiko eta sozialak leuntzeko lanean ari da udala. Besteak beste, diru-laguntza berriak sortu edo zeudenak egoerara egokitzena ritu da azken hilabeteotan. Deialdi horien bidez jaso dute laguntza egoera ekonomiko zailean zeudenek merkatari eta ostalariek, alokairu eta maileguen ordainketarako arazoak zituztenek, zaintzarako norbait kontratatu behar izan dutenek, sustapen ekonomikorako laguntza



4
udalaldizkaria

behar izan dutenek... "Pandemiak egun batetik bestera eragin digu guztioi; sektore eta perfil desberdinetako herritarren artean izan du eragina. Horregatik, guretzat garrantzitsua izan da zerbitzu eta lerro desberdinen bidez herriko errealitate anitzei erantzuteko neurriak hartzea" zehaztu du.


Lehen erantzun hori emanda, aurrera begira dago alkatea: "Osasun larrialdi egoeran jarraitzen dugu eta egunero herritarren sortzen diren behar desberdinei erantzuteko konpromiso osoa dugu. Herritarrek edozein arazoren aurrean udalarekin jo dezakete. Gu herritarren bizi kalitatea hobetzeko lanean ari gara".

**FOKOAREN AURREAN,
ELKARLANA**

Pandemiaren lehen hilabeteetan ez du eragin nabarmenik izan birusak Azpeitian. Lehen hilabeteetan

oso kasu gutxi izan ziren herrian: "Hasiera-hasieratik harreman estua izan dugu bai anbulatorioko eta San Martin egoitzako kideekin. Guretzat garrantzitsua izan da harreman hori; egunero eguneko informazioa izan eta horren arabera jokatzeko", dio Alkorta.

Baina egoera lasai hori, egun batetik bestera aldatu zen. Abuztuaren 14an hain zuzen. Egun horretan detektatu zuen Osasun Sailak Azpeitiko Alde Zaharrean ibilikoaren artean foko bat: "13 positibo izan ziren egun horretan eta eguerdirako Osasun Sailarekin harremanetan ginen lehenbailehen PCR frogara masiboak egiten hasteko". Eguerdian jaso zuten fokoaren berri eta ordu gutxiren buruan PCR proba masiboak egiten ari ziren Betharrameta-ko frontoian. "Fokoari aurre egiteko ezinbestekoa izan da herritarren erantzuna eta ardura, alde batetik. Eta, koordinazio eta elkarlana osasun arduradunekin, bestetik".



5
udalaldizkaria

Helburua garbia zen: ahalik eta jende gehienak probak egin eta positibo zirenak bakartzea, birusa gehiago ez zabaltzeko. Ondorengo egunetan 3.000 proba baino gehiago egin ziren, eta udalak zerbitzu publikoak ixteko erabakia hartu zuen: "Herritarrek deia erantzun zioten, eta hori benetan eskertzekoa da. Elkarlanean aritu ginen egun horietan Osasun Sailarekin, eta datuak lehen eskutik izatea eta erabakiak osasun arduradunekin kontrastatzeko aukera izatea ezinbestekoa izan zen une horretan", zehaztu du.

Erabaki gogorak hartu behar izan zituzten une horretan, baina helburua fokua kontrolatuz herritarren osasuna zaintzea izan zen. Neurri horien eta herritarrek izandako arduraren ondorioz, abuztuaren 26an Osasun Sailak fokua kontrolatutzat eman zuen.

ELKAR ZAINTEKO DEIA

Azpeitian egoerak hobera egin badu ere, birusak herrian jarraitzen du. Normaltasun berriak hasi da ikasturte berria eta herritarrei orain artean bezala arduraz jokatzeko eskatu nahi die Alkorta: "Herritarren gehiengoak arduraz jokatu du hilabete guztian. Datozen hilabeteotan ere prebentzio neurriak zorrotz bete eta elkar zaintzeko momentua da. Zaurgarrienak diren kolektiboekin solidarioak izan eta norbera zainduz elkar zaintzea dagokigu".



IKASTURTE HASIERA



IKASTURTE BERRIARI EGIN DIOTE NEURRIAK HARTUTA

Alarma egoera ezartzearekin batera ikastetxeak itxi ziren eta kultur, kirol zein bestelako taldeek beren jarduerak eten behar izan zituzten. Ez ohiko egoera batean izan dira hilabete luzez, baina egunerokoari aurre egin nahian dira orain.

Normaltasun berria ezartzearekin batera, arloz arlo eta ekintzaz ekintza jarraitu beharrekotako protokoloak zeintzuk diren argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzak. Protokoloak eskuan, udalak eta eragileen artean aritu dira aztertu, he-

rriko azpeigiturera egokitu eta osatzen. Kasu askotan, jarraibide edo irizpide oso orokorrak jaso dira eta lan handia egin behar izan da horiek findu eta egokitzen taldeen jarduerak eta ekintzak egin ahal izateko.

Azken hilabeteotan ohi baino es-tuagoa izaten ari da ikastetxeetako arduradunen eta udal arduradunen arteko harremana. Hasierako kezka eta online aritzeko baliabideen gabeziari aurre egiteko beharretatik hasi eta gaur egun haur eta gazte-


**“ZALANTZAK ARGITU
ETA PROTOKOLOAK BETETA
BEREN OHIKO EKINTZAK AURRERA
ERAMATEKO INFORMAZIOA ETA
BALIABIDEAK ESKURA JARTZEN
ARI DA UDALA”**

6

udalaldizkaria



**“HERRITARREK KULTURAZ,
KIROLAZ EDO BESTELAKO EKINTZETAZ
GOZATZEKO GURE SEGURUAK
SORTZEA DA HELBURUA”**



txoak ikastetxeetan seguru ibiltzeko beharrezko diren baliabideen gabezia gaineratu behar zaio. Udala ondoan izan dute ikasturte honen hasieran ere; lehenik ikastetxeetako arduradunekin bildu zen banan-banan bakoitzaren beharrak jaso eta beharrei erantzuna emateko. Ondoren, ikasturtea hastearekin bat, lehen egunen berri izan eta ideia trukaketa egiteko ere egin zuten bilera. “Egoera honek behar bereziak eta zalantza asko sortzen ditu. Eragileen espazioak eta ekintzak seguruak izateko

baliabideak eta babesa eskaintzea dagokigu. Neurriak hartuta, ahal den heinean beren jarduerak gauzatzea da helburua, egoerak laguntzen badu behintzat”, adierazi dute.

TALDEKIN ETENGABEKO HARREMANA

Nabarmena eta jakinekoea da Azpeitian talde asko eta jarduera askokoak daudela. Horregatik, hasiera-hasieratik etengabekoa izan da kirol eta kultura taldeekin duten harremana.

Uda aurretik hasi ziren taldeak kirol eta kultura ekintzak antolatu nahian. Protokoloak zorrotzak dira kasu gehienetan, eta askotan ez da posible izan nahi zutena antolatzea. Hala ere, ikasturte berriarekin batera, bakoitzak bere jarduerari ekiteko protokoloak ekintza eta espazio zehatzetara egokitzen ari dira, pixkanaka. Hala, herritarrek kulturaz, kirolaz edo bestelako ekintzetaz gozatzeko gure seguruak sortzea da helburua.

7

udalaldizkaria

INOR ATZEAN UTZI GABE, AURRERA EGITEKO LAGUNTZAK BIDERATU DITU UDALAK

Pandemiaren ondorioen aurrean ahulen gelditu diren herritarrak laguntzeko diru-laguntza eta zerbitzuak abian jartzeko ahalegin berezia egin du Udalak hilabete hauetan.

UDALAK 842.000€
BIDERATU DITU,
LAGUNTZEN BIDEZ,
HERRIT ARREN EGUNEROKO
BEHARREI ERANTZUTEKO.

kaintzen dute. Egoera konplikatu dela askorentzat ikusirik, herritarretan inbertitzea erabaki dugu”, zehaztu du.

Alarma egoera ezarri zenetik, Covid-19 birusaren hedapena zabaltzeko hartutako neurriek eragin sozial eta ekonomiko handia eragin dute. Ondorio horiek leuntzeko asmoz, Udala eragin horiek leuntzeko lanean ari da. Eragin hori gutxitzeko helburuarekin herrian ekimen publiko nahiz komunitario ezberdinak jarri dira abian. Guztiak, herrian okerren ari diren herritarrei lagundu asmoz.

Orain artean, krisiaren lehen hilabeteetan, pertsonak izan dute lehentasuna Azpeitian. Atzean inor ez uztea helburuarekin, udalak herritarrei laguntza eskaintzeko hainbat zerbitzu eta diru-laguntza jarri ditu abian. Herritarrak entzun, beharrak detektatu eta horiei erantzungo dien babes sistema integral bat osatu du; krisiak arlo askotan eragin du, eta bere osotasunean erantzun nahi izan zaio sortu den egoera berezi horri.

Lan mundua ezegonkor dago azken hilabeteotan, eta horrek eragin zuzena du langileen bizi kalitatean. Langabeziak gora egin du alarma egoera ezarri zenetik gaur egun arte. Apirilean, %9,4koa zen langabezia tasa eta abuztuan, berriz, %10,7koa izan da. Gaur egun, 771 herritar daude langa-

bezian: “Langabezia goraka doa, eta datuen atzean izen-abizen dun herritarrak daude. Familiak daude zenbaki horien artean eta horien bizi kalitatea mantentzeko lanean ari gara”, azpimarratu du Nagore Alkorta alkateak.

Langabeziak eragin zuzena du herritarren egunerokotasunean, eta lehen momentuan, oinarrizko beharrei erantzuna emateko lanean ari da Udala: “Lehentasuna herritarrak dira. Egun batetik besterakoa izan da aldaketa, eta lehen ere hilabete bukaerara juxtu iristen zenak, orain egoera konplikatua izango du ziurrenik”, gaineratu du. Egoera eta behar horiei guztiak aintzat hartzen zituen plan oso bat aurkeztu zuen maiatzean udalak.

Millioi bat eta zazpiehun mila euro bideratu zituen horretarako. Hor-tik, 842.000€ herritarren eguneroko beharrei erantzuteko laguntzak izan ziren; 362.000 oinarrizko beharretarako, 300.000 kontziliaziorako eta 180.000 alokairu eta maileguak ordaintzeko laguntzak. Hori guztia posible izan da Azpeitiko Udalaren egoera ekonomikoa ona delako: “Azken urteotako gestio zorrotz eta egokiak, horrelako egoeretan Udalak baliabideak izan eta herritarrak babesteko aukera es-

Neurri horien berehalakotasunaren garrantzia handia izan du: “Alarma egoeraren hasieratik hartu dira neurri zehatz ezberdinak; azkartasuna ez dagoelako zuhurtziarekin borrokan. Horretara bideratu dira udalaren esku zeuden giza baliabide eta ekonomiko guztiak”, gaineratu du. Azkartasun horretan, herritarrak izan dute lehen arreta. Azkenean albo kaite guztiak familien ekonomian dutelako eragina. Eta herritarrak artatzeko jarritako diru baliabide guztiak Udalak.

EPE MOTZ ETA ERTAINERAKO BEGIRADA

Osasun larrialdiari erantzutea eta herritarren bizi kalitatean pandemiak eragindako kalteak arintzeko neurriak hartzea izan da lehen pausoa. Hala ere, krisi hori epe motzerako erantzunak emateaz gain, epe ertainerako plana ere beharrezkoa da. Hala, Udalak epe motzerako eta ertainerako begiradak uztartu ditu. Alde batetik, lehen aste eta hilabeteetan egoera zaurgarrienean dauden herritarrentzako laguntza bideratzeko hartu ditu neurri guztiak. Eta, bestetik, langabeziari aurre egin eta egoera ekonomikoa sustatzeko neurriak hartu ditu, sustapen ekonomikorako laguntzen bidez.

“Bizi dugun egoeran neurriak berehala hartzea oso garrantzitsua da okerren pasatzen ari direnen beharrei erantzuteko”

Leire Goenaga



Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua da, eta azken hilabeteotan buru-belarri ari da Covid-19aren pandemiak eragindako ondorioak leuntzeko lanean. Martxotik asko aldatu da herritarren egunerokoa eta egoera sozial eta ekonomikoa. Horiek aztertu eta beharrei erantzuteko dirulaguntza eta zerbitzuak egokitu dira epe honetan Udalean.

Martxoan alarma egoera ezarri eta asko aldatu zen egoera sozial eta ekonomikoa.

Egun batetik bestera, ia herritar guztiok etxetik irten gabe gelditu ginen, birusari aurre egiteko. Horrek ondorio asko utzi ditu. Alde batetik, telelana egiteko aukerarik ez zuten herritar asko eta asko ERTEan edo langabezian gelditu ziren, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Lehen ere hilabete bukaerara iristeko lanak izaten zituztenei ere egoera okertu zitzairen. Eta, bestetik, birusaren aurrean babesgabeenak diren herritar ugari etxean dira prebentzio neurri gisa. Beraz, arlo desberdinetan behar sozial desberdinak plazaratu ziren, eta horiei erantzuteko lehen neurri eta zerbitzuak jarri genituen martxan. Bizi dugun egoeran neurriak berehala hartzea oso garrantzitsua da, oke-

rren pasatzen ari direnen beharrei erantzuteko.

Sektore ezberdinetako herritarrei eta modu ezberdinean eragin die pandemiak.

Bai, oso desberdin eragin die pandemiak herriko sektore desberdinei. Udalaren zeregina, alarma egoera ezarri zenetik egoeraren diagnosis egin eta beharrei erantzutea izan da. Horretarako, hasiera hasieran, etxean zeuden adineko eta patologia desberdinak zituztenei lagundu asmoz boluntario sarea osatu genuen, egunean eguneko beharrei erantzuteko. Boluntario sare horri esker adinekoen egoera ezagutzeko 70 urtetik gorako herritarrei deitu zitzairen telefonoz, beharren bat bazuten galdetu eta bakarrik ez sentitzeko. Herriko etorkinei ere deitu genien, egoera nola bizi zuten eta beharrik detektatzeko. Horren ostean, dirulaguntza lerro desberdinak egokitu edo berriak sortu ditugu, oinarrizko beharrei erantzuteko, gutxiarik.

Diru-laguntzek zer nolako harrera izan dute?

Egoera honek oraindik eta argiago erakutsi digu, bakoitzaren egoera egun batetik bestera aldatu daitekeela eta gaur inolako beharrik

ez duenak, bihar edo etzi laguntza publikoen beharra izan dezakeela. Horregatik, oinarrizko beharrik asetzeko eta alokairua edo hipoteka ordaintzeko dirulaguntzak jarri genituen martxan, besteak beste.

Laguntzetarako 211.970€ bideratu dira orain artean eta 344 familia lagundu dira Gizarte Zerbitzuen bidez; horietatik 114-k Covid-19ak sortutako egoeratik eskatu zuten laguntza. Oinarrizko beharretarako laguntzaz asetzeaz ari garenean; janaria, botikez, alokairuaz, osasunaz hari gara.

Janari Bankua edo arropa bankua ere garrantzitsuak izan dira.

Bai, noski. Urte luzeetan boluntarioen bidez funtzionatzen dute biek. Egoerarik zailenean dira beharrezkoenak, eta azken hilabeteotan ere oso garrantzitsuak izan da beraien lana. Janari Bankuarekin elkarlana indartu dugu, herrian oinarrizko elikagaiak gabe inor ez egoteko. Hilabete hauetan herritar gehiagok eskatu dituzte elikagaiak eta horregatik banaketa gehiago egin ditugu eta elikagaiak ere erosi ditugu beharra duten guztiek janaria izan dezaten. Elkarrekin eratzuten ari gara beharrei, eta udalak elikagaiak bermatzen dizkie okerren pasatzen ari direnei.



OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO EUSKO JAURLARITZAK BIDERATZEN DUEN LAGUNTZAREKIN, BEHARREN %20-25 ARTEAN SOILIK ARTATZEN DIRA; %70-75A UDALAK JARTZEN DU

OINARRIZKO BEHARRETARAKO LAGUNTZA

Herritarren artean sortutako oinarrizko beharrei erantzun azkarra eman asmoz egokitu ditu Azpeitiko Udalak udal laguntzak.

Azpeitiko Udalak 2020ko udal laguntzen bidez, ekonomikoki egoera zaila pasatzen ari diren herritarrek babestea du helburu. Herritarrei laguntza hori bideratzeko 362.000 euro dirulaguntza poltsa aurreikusia du, 2020rako; hala ere, inor atzean ez uzteko helburu izanda, beharrezkoa bada aurrekontua handitzeko konpromisoa du.

Aurtengo deialdia COVID-19 gaixotasuna dela-eta sortutako alarma egoerak behar berriak ekarri dituelako egokitu egin du. Alarma egoerak irauten duen bitartean izandako diru-sarrerak izango dira kontuan diru-

laguntza ebazterakoan, ikusi delako hainbat herritarren lan-egoera aldatu egin dela martxoaren 15ean alarma egoera ezarri zenetik.

Oinarrizko beharrei erantzuteko bideratuko da. Honako beharrik dauka oinarrizko gisa zehaztuta, besteak beste:

- Alokairua ordaintzea.
- Elikagaiak erostea.
- Osasun eta farmazia produktuak eskuratzea.
- Ura, gasa, argindarra eta halako hornikuntzak finantzatzea.

344 familia onuradun

Urtea hasi denetik eska daiteke oinarrizko beharretarako laguntza Azpeitiko Udalean, eta iraila bitartean 344 familiak jaso dute egokitzen zitzairen

laguntza. Oinarrizko elikagaiak eskuratzeko laguntza.

Covid-19aren pandemiak eragindako kalteak leuntzeko 114 espediente tramitatu dira. Udalak duela hainbat urte jarri zuen laguntza hau Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen diru-sarrerak bermatzeko errentak eskaintzen duen laguntza osagarria da. Izan ere, Jaurlaritzak laguntza horretarako dirua gastatu edo baldintza horietan sartzen ez diren herritarrei laguntzako jarri zen. Hala, Urtea hasi denetik, bi laguntzen bidez 211.970, 75 euro bideratu dira herritarren oinarrizko beharretara.

Diru partidaren zenbatekoa:
362.000€
Eskaera egiteko epea:
abendua 20

**OHIKO ALOKAIRURAKO LAGUNTZAK
ESKATZEKO EPEA URRIAREN
15EAN BUKATUKO DA.**



ETXEBIZITZEN ALOKAIRU ETA MAILEGUAK ORDAINTZEKO LAGUNTZAK

Kontratupean edo autonomo gisa aritu, eta pandemiaren eraginez, apirilean eta maiatzean diru-sarrerak murriztu zaizkien langileei bideratutako diru-laguntza da.

Hainbat familiaren egoera ekonomikoa kaltetu egin da martxoaz geroztiko ez ohiko neurrien ondorioz. Etxebizitzen mailegu eta alokairua familien ekonomian gastu garrañtzi-tsu edo nagusienetarikoa izan ohi da. Hori dela eta, Azpeitiko Udalak

80.000 euroko diru-laguntza lerroa jarri zuen abian, alarma egoeraren ondorioz diru-sarrerak murriztu zaizkien familiei apirilean eta maiatzean alokairua zein mailegua ordaintzen laguntzeko.

Diru-laguntza lerro horren bidez, oinarrizko beharrak asetzeko laguntzak osatzeko nahi izan zuen Udalak. Hala, pobrezia egoeran egon gabe ere, egoera ekonomikoa zailean gelditu ziren herritarrak babestea izan zen helburua.

Horretaz gain, Azpeitiko Udala, Azpeitia Berritzenean bidez, etxebizitza sare publikoan alokairuan bizi diren pertsonak apirila, maiatza eta ekaineko alokairuak ordaintzetik salbuetsiak geratzeko Eusko Juarlaritzak eginiko deialdira atxiki zen. Udalak dituen babes publikoko 18 etxebizitzaren alokairuan daudenei horren berri eman zitzaie, eta bi familiak eskaera egin eta onura jaso zuten.

12

udalaldizkaria

OHIKO ALOKAIRUKO DIRU-LAGUNTZA, ABIAN

Egoera berezi honek kaltetutakoei laguntzeko deialdiaz gain, ohiko alokairurako diru-laguntza eskatzeko diru-laguntza ere abian jarri zuen Udalak. Orain artean bezala, honako herritarrei bideratuta dago diru-laguntza: 35 urtetik beherakoei, 70 urtetik gorakoei, banandutakoei, alargun gelditutakoei edota urritasunen bat dutenei.

Alokairuaren errentak 550 euro baino gutxiagokoa izan beharko du, eta eskatzailearen diru-sarreraren arabe-

rako batez bestekoa lagunduko da diruz. Alde Zaharrean etxebizitza alokairuan hartzen dutenek 50 euroko gehigarria izango dute.

Azken urteotan laguntza hau 75-80 bat lagunek jaso izan dute eta batez beste 2.400€ jaso izan dituzte urteko.

Eskaerak aurkezteko epea:

urriak 15

Diru partidaren zenbatekoa:

100.000€

**180.000 EURO
BIDERATUKO DIRA AURTEN
HERRITARREN ALOKAIRU
ETA MAILEGUAK ORDAINTZEKO
LAGUNTZETARA**

13

udalaldizkaria



BERTAKO MERKATARITZARI EUSTEKO LAGUNTZA

Zaintza eta merkataritzarako
600.000€

Martxoaren 17an emergentziazko laguntzak onartu zituen Azpeitiko Udalak Covid-19aren lehen kalte eta arazoei aurre egiteko. Zaintzarako eta establezimendu txikientzako laguntzak izan ziren. 286 establezimenduk jaso dute laguntza; horietatik 269k 1.000€takoa.

Martxoaren 14an, alarma egoera ezartzearekin batera herriko den-da txiki eta establezimenduek ixteko agindua jaso zuten. Agindu horren eragindako kalte ekonomikoak arintzeko helburuarekin, udalak 600.000€ko urgentziazko diru-laguntza onartu zuen.

Alarma egoerak ixtera (osorik edo partzialki) derrigortutako establezimenduei zuzendurikoa izan zen. Martxoaren 17an aurkeztu eta api-

rilaren 16ra arte izan zen eskaerak egiteko epea. Udalaren diru-laguntza lerro honek harrera ona izan du herritarren artean, eta interes handia piztu du; 387 eskaera jaso dira guztira. Horietatik 286 establezimenduk jaso dute laguntza eta 277.428€ banatu dira.

KONTZILIAZIORAKO LAGUNTZA

Martxoaren 13an 6/2020 dekretuaren bidez Lehendakariak hezkuntza zentroen itxiera agindu zuen, eta hilabete luzez etxean izan dira haur eta gaztetxoak. Erabaki horrek familia ugarian kontziliazio eta zaintza arazoak sortu zituen. Hori dela eta, urgentziazko diru-laguntza tramitatu zen 0-12 urte bitarteko haurren zaintzarako eragozpenak arintzeko laguntzak eta eguneko zentro nahiz beste antzeko zerbitzuen itxieraren ondorioz menpekotasun duten pertsonen zaintzarako eragozpenak arintzeko. Lehen deialdi horretan, 15 herritarren eskaerak jaso ziren.

Ondoren, Sustapen sozial eta ekonomikorako aurkeztutako Plan In-

tegralaren baitan, eta COVID-19ak herritarren artean eragindako arazoei irtenbidea eman asmoz, haur zein menpekotasuna duten pertsonen zaintza lanetarako kontratazioak bultzatzeko diru-laguntzen deialdia berri bat jarri zuen abian Udalak.

Alarma egoera ezarri zenetik zaintza lanen inguruko kezka izan du Azpeitiko Udalak. Hezkuntza zein adinekoen zentroen itxiera zela eta familiei baliabideak eskaini asmoz, martxoan argitaratutako urgentziazko laguntzen baitan zaintzara bideratu zuen diru-laguntza lerroetako bat. Orain kontratazioak laguntzeko beste diru-laguntza lerro bat abian jartzea erabaki du. Laguntza honen bidez, Eusko Jaurlaritzak lan eszedentzia edo lanaldi murrizketarako laguntza osatu nahi izan du Udalak.

Eskaerak aurkezteko epea:
urriak 30
Diru laguntzaren zenbatekoa:
300.000€



475.000€ EKONOMIA LAN MUNDUARI BULTZADA EMATEKO

Laguntza honen helburu nagusia da enpleguaren sorrera eta enpresen lehiakortasuna sustatuz sortu den krisi egoera gainditzea eta eraldaketa ekonomiko eta soziala eraginez lehiakortasun eta garapen jasagarriko beste errealitate batera salto egitea.

Laguntza horiek zehazterakoan hainbat azterketa eta datu izan ditu abiapuntu Udalak. Alde batetik, pixkanaka goraka doan langabezia tasa izan dute kontuan. Abuztuko datuen arabera, Azpeitian %10,7koa da langabezia herrian. Bestetik, enpresen egoera dago, egindako hainbat bileraren bidez, gertutik ezagutzen du sektore desberdinetan bizi duten egoera.

Ekonomia sustatzeko laguntzak 2013. urtean jarri zituen abian Udalak; orain arteko ibilbidea, beharrak eta herrian dagoen ehun industrial aintzat hartuta osatu da aurtengo deialdia; alarma egoerak eragindako kalteak arindu asmoz, gainera hasieran aurreikusita diu poltsa ia bikoiztu egin du.

Deialdia abian dago eta eskaera gehienak aurkezteko epe gehienak urriaren 30ean bukatzen dira; hala ere, langileak kontratatzeko linean epe horretatik aurrerako kontratazioetarako laguntzak abenduaren 31ra arte aurkez daitezke.

Laguntzak lau linea ditu

- Merkataritza eta lehen sektorean enplegua eta ekonomia sustatzeko laguntza

175.000€ko aurrekontua du.

- Industria proiektu estrategikoak eta berritzaileak, enplegua sortu edo mantentzen duten eta garapen jasagarria bultzatzen duten inbertsio proiektuak eta genero-berdintasuna sustatzeko diru-laguntzen lerroak sustatzeko laguntzak

60.000€ko aurrekontua du.

- Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte ekonomian eta izaera

estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko diru laguntzak

65.000€ko aurrekontua izarigo du eskaerak egiteko epe urriaren 30era arte izango da aukera. Diruz laguntza eskatu ahal izango dute 2018ko urriaren 16tik 2020. urteko irailaren 30era bitartean enpresa berri bat sortu dutenek.

- Langileen kontratazioetarako laguntza

Lan munduak duen egoera ikusita laugarren lerro berri bat abian jartzeko apustua egin du aurtengo udalak. Horretarako 75.000€ jarri dira. Eskaerak egiteko bi epe izango dira; urriaren 31 arte egindako kontratazioetarako eta azaroaren 1tik abenduren 31 bitartekoentzat.

Azpeitiko enpresek herritarrak kontratatzea diruz lagunduko da laguntza horren bidez.

*Zaindu zure osasuna,
herritar guztion osasuna
zaintzeko*

